| 2018KO OTSAILAREN 22AN, LEHENENGO DEIALDIAN SOPELAKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SOPELA, EL DIA 22 DE FEBRERO DE 2018 |
|---|---|

**BERTARATUAK / ASIStENTES**

**LEHENDAKARIA / PRESIDENTE**
**ALKATEA / EL ALCALDE**

Gontzal Hermosilla Ramos

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

Leire Basauri Castellanos (EAJ-PNV)
María Teresa Fernández García (PSE-EE (PSOE))
Naiara Ibarzabal Arrasate (EAJ-PNV)
Felix Gabarain Amenabar (EAJ-PNV)
Emilio Ramos Rodríguez (EAJ-PNV)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Francisco Javier Intxaurza Zarandona (EAJ-PNV)
Belén Urbieta Pérez (EAJ-PNV)
Guillermo Vío Domínguez (EH BILDU)
Iratxe Moreno Fernández (EH BILDU)
Ander Moreno del Campo (EH BILDU)
Ione Aurrekoetxea Yangüas (EH BILDU)
Juan María Sánchez Conde (EH BILDU)
Miguel A. Tapia Trigueros (EH BILDU)
Jon Andoni Gerediaga Bilbao (DB-TU)
Juan Ignacio Del Vigo Cruz (ORAIN)
Manuela Ruiz Vivanco (Atxikigabeko zinegotzia) (Concejala no adscrita)

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**

Laura Arana Aguirre

## ATAL ERABAKITZAILEA

### Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia

**1.- 2018. EKITALDIKO AURREKONTUARI LEPORATUKO ZAIZKION LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. (2017an erregistratuak) (Aurrekontuekin):-** Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 40. eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu

## PARTE RESOLUTIVA

### Hacienda y Especial de Cuentas

**1.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS registradas en 2017 (Con cargo al Presupuesto de 2018) (Con Presupuesto)**:- De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

aurreko gastu baimenik ez dagoela eta.

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikoko den Emilio Ramos jaunak hartu du hitza, betebeharren aitorpena azaltzeko.

Seguidamente, toma la palabra D. Emilio Ramos del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para explicar el reconocimiento de las obligaciones.

Ondoren, Denok Batera Sopela udal talde politikoko Jon Andoni Geregiaga jaunak hartu du hitza, hau adierazteko: Bakarrik esan nahi dut agerian utzi nahi dugula ez gaudela ados Alkatetzak 2018ko Aurrekontua onesteko erabilitako prozedurarekin. Gure taldeak ez du bozkatuko 3 puntu horietako bat bera ere.

A continuación toma la palabra D. Jon Andoni Geregiaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela para señalar: Sólo manifestar que para dejar patente nuestro desacuerdo con el procedimiento empleado por la Alcaldía para aprobar el Presupuesto de 2018, nuestro grupo no votará ninguno de estos tres puntos.

Alkate jn.ak hartu du hitza: Gogorarazten dizut botorik ez ematea abstentzioa dela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde indicando: Te recuerdo que el no voto es una abstención.

Ondoren, Manuela Ruiz andreak (atxikigabeko zinegotzia) hartu du hitza: Gure botoa abstentzioa izango da.

Después toma la palabra Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita) indicando: Nosotros nos abstendremos.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal talde politikoko Guillermo Vio jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Mintzaldi bakarra egingo dut 3 puntuetan, hots, 1, 2 eta 3. puntuen inguruan (Betebeharrak aitortzea), desberdinak badira ere. Ogasun Batzordean, gure ordezkariek zenbait akats komentatu zituzten, baita hobekuntzak ere; izan ere, oso harrera ona izan zuten hobekuntza horiek. Hiru fakturatan, kontabilitate-txostena zuzentzeko eskatu zen; ez dago zuzenduta, eta fakturen kontabilitatean ez dira agertzen gastu horiei ezarri zaizkien aurrekontuko aplikazioak. Hortaz, ondo dauden ala ez kontuan hartu barik, oposizioa garen aldetik, ezin dugu jarraipen eta kontrol lana egin. Ordaindu egin behar da. Inork ez dio horri uko egingo, eta ez dugu galaraziko, baina gutxienez Batzordean aplikazioa agertzea eskatzen dugu. Ildo horretan, abstentzioa izango da gure botoa hiru puntuetan.

Acto seguido toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopelako EHBildu para señalar: Haré una única intervención para los tres puntos, es decir, para los puntos 1, 2 y 3 (Reconocimiento de Obligaciones) a pesar de que son diferentes. En la Comisión de Hacienda nuestros representantes comentaron una serie de errores, con sus correspondientes mejoras mejoras, y de hecho, fueron bien recibidas. En tres facturas se solicitó qu ese corrijiese el informe contable, no está corregido y en la contable de las facturas, no aparecen las aplicaciones presupuestarias a las que se imputan esos gastos. Por tanto, independientemente que esté bien, como oposición, no podemos hacer nuestra labor de seguimiento y control. Hay que pagar. Nadie va a negarse a eso y no lo vamos a imposibilitar, pero sí pedimos que aparezca, por lo menos en Comisión, las aplicaciones. En ese sentido, nos abstendremos en los tres puntos.

Ondoren, alkate jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Guztiok ondo baderitzogu, inork ez badu ezer gehitu nahi hurrengo 2 puntuetan, eta idazkaritzak ez badu eragozenik, hiru puntuak bozkatu litezke.

A continuación, toma la palabra el Sr. Alcalde para indicar: Si a todos os parece correcto, si nadie quiere añadir nada en los siguientes 2 puntos, y si no hay ningún impedimento por parte de la Secretaría, se podrían votar los tres puntos.

Abstentzioak: Guillermo Vio, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekotxea, Juan Mª

Con la abstención de D. Guillermo Vío, Dª Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, Dª Ione

Sanchez eta Miguel A Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; Jon Andoni Gerediaga jauna, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa; Juan Ignacio Del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa eta Manuela Ruiz andrea (atxikigabeko zinegotzia).

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du: Ondoko betebeharrak aitortzen dira:

Aurrekotxea, D. Juan Mª Sánchez y D. Miguel A. Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu; de D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela; de D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain y de Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita).

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| FECHA/DATA | IMPORTE TOTAL/ZENBATEKOA | NOMBRE/IZENA | TEXTO EXPLICATIVO/AZALPENA |
|---|---|---|---|
| 26/12/2017 | 653,40 | CARPINTERIA METALICA TXOMIN, S.L. | 4 VENTANAS EN PLANTA BAJA / 4 LEIHO BEHEKO SOLAIRUAN |
| 31/12/2017 | 2.996,63 | EUSKAL FONDOA | CUOTA EUSKAL FONDOA 2017 / EUSKAL FONDOAREN KUOTA 2017 |
| | **3.650,03** | | |

**2.- 2018. AURREKONTUARI LEPORATUKO ZAIZKION LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA, 2018AN ERREGISTRATUTAKOAK ETA (2018ko gastuei dagokienak):-** Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 40. eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu aurreko gastu baimenik ez dagoela eta.

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikoko den Emilio Ramos jaunak hartu du hitza, betebeharren aitorpena azaltzeko.

Abstentzioak: Guillermo Vio, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekotxea, Juan Mª Sanchez eta Miguel A Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; Jon Andoni Gerediaga jauna, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa; Juan Ignacio

**2.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS CORRESPONDIENTES AL 2018 REGISTRADAS EN 2018 (Con cargo al Presupuesto de 2018):-** De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Seguidamente, toma la palabra D. Emilio Ramos del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para explicar el reconocimiento de las obligaciones.

Con la abstención de D. Guillermo Vío, Dª Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, Dª Ione Aurrekoetxea, D. Juan Mª Sánchez y D. Miguel Tapia del grupo político municipal Sopelako EHBildu; D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela; D.

Del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa eta Manuela Ruiz andrea (atxikigabeko zinegotzia);

Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain y Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita);

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du: Ondoko betebeharrak aitortzen dira:

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Fecha/Data | Importe Total/Zenbatekoa | Nombre/Izena | Texto Explicativo/Azalpena |
|---|---|---|---|
| 9.976,45 | B48265946 | INGENIERIA IZARVI | 40% DIRECCIÓN OBRA DEL BIDEGORRI GATZARRINE / GATZARRIÑEKO BIDEGORRIAREN OBRA ZUZENDARITZA, %40 |

**3.- 2018. AURREKONTUARI LEPORATUKO ZAIZKION LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA, 2017AN ERREGISTRATUTAKOAK (2018ko Aurrekontuaren kargura) (Aurrekontu barik):-** Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 40. eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu aurreko gastu baimenik ez dagoela eta.

**3.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS REGISTRADAS EN 2017 (Con cargo al Presupuesto de 2018) (Sin Presupuesto):-** De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikoko den Emilio Ramos jaunak hartu du hitza, betebeharren aitorpena azaltzeko.

Seguidamente, toma la palabra D. Emilio Ramos del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para explicar el reconocimiento de las obligaciones.

Abstentzioak: Guillermo Vio, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekotxea, Juan Mª Sanchez eta Miguel A Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; Jon Andoni Gerediaga jauna, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa; Juan Ignacio Del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa eta Manuela Ruiz andrea (atxikigabeko zinegotzia);

Con la abstención de D. Guillermo Vío, Dª Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, Dª Ione Aurrekoetxea, D. Juan Mª Sánchez y D. Miguel Tapia del grupo político municipal Sopelako EHBildu; D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela; D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain y Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita);

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du: Ondoko betebeharrak aitortzen dira:

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Importe Total / Zenbatekoa | Tercero / Hirugarrena | Nombre / Izena | Texto Explicativo / Azalpena |
|---|---|---|---|
| 1.357,62 | B95431367 | IMQ PREVENCIÓN, S.L. | PLAN AUTOPROTECCIÓN PISCINAS / IGERILEKUETAKO AUTOBABES PLANA |
| 1.234,20 | B95431367 | IMQ PREVENCIÓN, S.L. | AUTOPROTECCIÓN KURTZIO / KURTZIOKO AUTOBABESA |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1.052,70 | B48239958 | TALLER 2A | | |
| 3.194,40 | 30596462E | REMOLQUES CAMINO VEGA | | |
| 230,86 | A74251836 | NATURGAS COMERCIALIZADORA ULTIMO RECURSO, S.A. | GAS HOGAR JUBILADO 17/10 AL 13/12/2017 / JUBILATUEN ETXEKO GASA, 2017/10/17tik 2017/12/13ra | |
| 167,02 | A74251836 | NATURGAS COMERCIALIZADORA ULTIMO RECURSO, S.A. | GAS ASOCIACIONES 20/10 AL 15/12/17 / ELKARTEEN GASA 2017/10/25etik 21/12/15era | |
| 128,42 | A74251836 | NATURGAS COMERCIALIZADORA ULTIMO RECURSO, S.A. | GAS POLICIA MUNICIPAL 19/10 AL 15/12/2017 / UDALTZAINGOAREN TASA, 2017/10/19tik 2017/12/15era | |
| 31.038,39 | A95758389 | IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. | ELECTRICIDAD DICIEMBRE 2017 / ARGINGARRA 2017KO ABENDUA | |
| 5.381,85 | A95554630 | IBERDROLA COMERCIALIZADORA DE ULTIMO RECURSO, S.A. | ELECTRICIDAD SUMINISTRO DICIEMBRE 2017 / ARGINDARRA 2017KO ABENDUA | |
| 614,89 | B95589586 | SERVIACHIQUES S.L. | MANTENIMIENTO POZOS BOMBEO NOV-DICIEMBRE 2017 / PONPAKETA MANTENTZEA 2017KO ABENDUA | |
| 29.968,60 | A48212567 | GARBIKER, S.A. | TRATAMIENTO DE RESIDUOS DICIEMBRE / HONDAKINEN TRATAMENDUA, ABENDUA | |
| **74.368,95** | | | | |

## ARGIBIDE, SUSTAPEN ETA KONTROL ATALA

## PARTE DE INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

**4.- PRESAZKO MOZIOAK, HALAKORIK BADA:-** Une honetantxe, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek deialdiarekin batera doan gai-zerrendan ez dagoen eta galde-erreguen txandan sartu ezin den gairen bat aztertu nahi duen, premiazkoa delako. Horri erantzunez, EZETZ adierazi dute zinegotziek.

**4.- MOCIONES DE URGENCIA, SI LAS HUBIERA:-** En este momento, se pregunta por el Sr. Alcalde si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el Orden del Día que acompañaba a la Convocatoria y que no tenga cabida en el punto de Ruegos y Preguntas, a lo que se responde por parte los concejales, que NO

**5.- BERRI EMATEA:- GAIA:- DEIALDI HONETAKO ERANSKINEAN AGERTZEN DIREN ALKATETZA DEKRETUAK:-** a) Berri ematea.-Gaia: otsailaren 2ko 174/2018 Alkatetza Dekretua, ezkontza zibila egiteko alkatetza-ahalmena Fco. Javier Intxaurza Zarandona jaunari eskuordetzeari buruzkoa.

**5.- DACIONES DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA RELACIONADOS EN EL ANEXO DE ESTA CONVOCATORIA:-** a) Dación cuenta del Decreto de Alcaldía número 174/2018, de 2 de febrero, relativo a delegación a D. Fco. Javier Intxaurza para celebración matrimonio civil
.

b) Berri ematea.-Gaia: otsailaren 2ko 197/2018 Alkatetza Dekretua, ezkontza zibila egiteko alkatetza-ahalmena Fco. Javier Intxaurza Zarandona jaunari eskuordetzeari buruzkoa.

b) Dación cuenta del Decreto de Alcaldía número 197/2018, de 6 de febrero, relativo a delegación a D. Fco. Javier Intxaurza para celebración matrimonio civil

c) Berri ematea: otsailaren 9ko 206/2018 Alkatetza Dekretua. Gaia:- Bilketa arloaren 2017ko Kontu Nagusia.

c) Dación de cuenta Decreto de Alcaldía número 206/2018, de 9 de febrero, relativo a Cuenta General de Recaudación del ejercicio

2017.

d) Berri ematea: otsailaren 9ko 207/2018 Alkatetza Dekretua. Gaia: 2017ko Aurrekontuaren kitapenaren berri ematea.

e) Berri ematea: otsailaren 9ko 208/2018 Alkatetza Dekretua. Gaia: Kreditu Txertaketen bidez Udal aurrekontuak aldatzeko 1. Zbk espedientearen aldaketaren berri ematea.

f).- Berri ematea: Gastu orokorretarako diruzaintzaren soberakinen erabilerarekiko 2017ko 4. Hiruhilabeteko finantza jasangarritasunaren txostena.

Osoko bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:- jakinaren gainean geratu da.

**7.- ERREGU, GALDERAK ETA MOZIO EZ ERABAKIGARRIAK:-**

**Mozio ez erabakigarriak**

**(A).- Juan Ignacio Del Vigo jaunak aurkeztua, Orain udal talde politikokoak.- Gaia: hurrengo martxoaren 8aren greba feministari euskarria**. Ondoren, Orain udal talde politikoko Juan Ignacio Del Vigo jaunak hartu du hitza, mozioa irakurtzeko. Honelaxe dio hitzez hitz:

*ZIOEN AZALPENA*

*Espainian 14 urte eskasean 1.000 emakume baino gehiago hil ditu indarkeria matxistak, eta indarkeria onartezin horri gehitu behar zaizkio emakumeen eta gizonen artean mundu osoan dagoen desberdintasunak XXI. mendean dituen ondorio lotsagarriak.*

*Desberdintasun hori egunero azaltzen da arlo askotan, baina, zalantzarik gabe, lanaren arloan agertzen da nabarmen: %20koa da generoen arteko soldata diferentzia gizonen alde; ordaindu gabeko lan-karga ikaragarria bere gain hartzen jarraitzen dute emakumeek; ondoriorik gabekoak edo urriak dira seme-alabak bi gurasoen artean zaintzeko erantzukizunen banaketa ahalbidetzen duten amatasun eta aitatasun baimenak.*

*Lan egiten dutenen munduko lan-jardueraren %63 dira emakumeak, eta diru-sarrerak*

d) Dación de cuenta Decreto de Alcaldía número 207/2018, de 9 de febrero, relativo a liquidación del Presupuesto 2017.

e) Dación de cuenta Decreto de Alcaldía número 208/2018, de 9 de febrero, relativo a Expediente nº 1 de modificación presupuestaria mediante incorporación de créditos.

f) Dación de cuenta del inorme de sostenibilidad financiera del 4 trimestre de 2017 en relación con la utilización del remanente de tesorería para gastos generales.

El Pleno, por unanimidad, acuerda:- Darse por enterado.

**7.- RUEGOS, PREGUNTAS Y MOCIONES NO RESOLUTIVAS:-**

**Mociones no resolutivas**

**(A).- Moción no resolutiva presentada por D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain relativa a apoyo a la huelga feminista del próximo 8 de marzo.** A continuación toma la palabra D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain para proceder a la lectura de la misma, que es del siguiente tenor literal:

*EXPOSICIÓN DE MOTIVOS*

*A la inaceptable violencia machista que sólo en España ha supuesto el asesinao de más de 1.000 mujeres en apenas 14 años, se suman las consecuencias infames que en pleno siglo XXI tiene la desigualdad entre mujeres y hombres en todo el mundo.*

*Esta desigualdad se manifiesta a diario en múltiples ámbitos pero, sin duda, en el campo laboral es donde se presentan de una forma más evidente: la brecha salarial entre géneros es del 20% a favor de los hombres; las mujeres siguen asumiendo en todo el mundo una carga desproporcionada de trabajo no remunerado; los permisos de maternidad y paternidad que posibilitan el reparto de responsabilidades en el cuidado de hijas e hijos entre ambos progenitores son nulos o escasos.*

*Las mujeres representan un 63% de la actividad laboral mundial de quienes trabajan y perciben*

*jasotzen dituzte lege xedapen formaletatik at, estatuko zergen kontrolekoak barne; emakume migratzaileek gizon migratzaileek baino lan baldintza txarragoak dituzte, lanaldi luzeagoak izaten dituzte eta ez dute gizarte babesik jasotzen, edo oso txikia; lantokietan emakumeen kontra dagoen indarkeria errealitate onartezina da: soilik Europar Batasunean, sexu-jazarpena izan dutela dioten emakumeen %55aren %3k lantokian jasan du jazarpen hori.*

*ingresos al margen de disposiciones legales formales, incluidas las de control tributario estatal; las mujeres migrantes se ven sometidas a condiciones laborales más precarias que los hombres migrantes viéndose expuestas a jornadas de trabajo más largas y a un acceso a la protección social inexistente o muy limitado; la violencia contra las mujeres en el espacio laboral es una realidad inadmisible: sólo en la Unión Europea el 3% del 55% de las mujeres que aseguran haber experimentado acoso sexual, lo han sufrido en su lugar de trabajo.*

*Emakumeak munduko biztanleriaren %65 dira, eta erretiro-pentsioa jasotzeko legeetan ezarritako adinetara iritsitakoan, ez dute horrelakorik jasotzen. Hori guztia emakumeek mundu mailako lanaren arloan duten egoera kezkagarria erakusten duten zenbait datu besterik ez aipatzearren.*

*Las mujeres representan el 65% de la población mundial, que, habiendo alcanzado las edades previstas por las leyes para recibir una pensión de jubilación, no la reciben. Todo esto por mencionar solo algunos datos que constatan la preocupante situación de las mujeres en el campo laboral a nivel mundial.*

*Horren aurrean, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa desagerraraztea ez da betebehar etikoa bakarrik, ezin luzatuzko konpromiso historikoa baizik, eta Estatuko erakunde guztiek parte-hartze eta protagonismo handia izan behar dute.*

*Ante ello, acabar con la discriminación entre mujeres y hombre resulta, no sólo un deber ético, sino un inaplazable compromiso histórico en el que todas las instituciones del Etado tienen que participar activa y protagónicamente.*

*Horregatik, mugimendu feministaren erakunde ugarik mundu osoan bultzaturiko emakumeen nazioarteko geldialdiari martxoaren 8an lege-estaldura emateko sindikatuek iragarri dutenari jarraiki, Sopelako Udalak honako erabaki hauek hartzen ditu:*

*Por ello, y ante el anuncio de los sindicatos de dar cobertura legal el próximo 8 de marzo al paro internacional de mujeres impulsado por numerosas organizaciones del movimiento feminista en todo el mundo, el Pleno del Ayuntamiento de Sopela adopta los siguientes acuerdos:*

*1.- Sopelako Udalak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu gure Konstituzioan eta gure legean greba egiteko ezarritako oinarrizko eskubidea erabiltzen dela bermatzeko munduko emakumeen kontrako gizarte, politika, moral eta berbazko diskriminazioa desagerrarazteko konpromisoa duten pertsona guztiei.*

*1.- El Ayuntamiento de Sopela tomará todas las medidas necesarias para garantizar el ejercicio del derecho fundamental de huelga previsto en nuestra Constitución y en nuestra ley, a todas aquellas personas comprometidas con acabar con la discriminación social, legal, política, moral y verbal contra las mujeres del mundo.*

*2.- Sopelako Udalak laguntza, publizitatea eta sostengua ematen ditu nazioko eta nazioarteko hainbat erakundek sindikatuekin batera martxoaren 8rako deituriko emakumeen geldialdirako.*

*2.- El Ayuntamiento de Sopela da su apoyo, publicidad y respaldo al paro de mujeres convocado para el día 8 de marzo desde diferentes organizaciones nacionales e internacionales en colaboración con los sindicatos.*

*3.- Bandera feminista Udaletxeko balkoian jartzea emakumeen borrokaren alde gaudela adierazteko sinbolotzat.*

*3.- Enarbolar la bandera feminista en el balcón del Ayuntamiento como símbolo de apoyo a la lucha de las mujeres.*

*4.- Sopelako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta*

*4.- El Ayuntamiento de Sopela instará al*

*nazioko gobernuari eskatzen die berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxisten kontrako aurrekontua gehitu dezaten.*

*Gobierno Vasco y al Gobierno de la Nación, a aumentar el presupuesto en igualdad y lucha contra las violencias machistas.*

Hau gehitu du Orain udal talde politikoko Del Vigo jaunak: Hori esanda, komentario txiki bat egingo dut. Mozioa kenduko dut, penagarria iruditzen baitzait hain gai sentikorrean taldeok elkar zapaltzen ahalegintzea mozio berak aurkeztuta. Bat aurkeztu dut, Ruiz andreak beste bat eta EAJk beste bat. Azkenean, hirurak dira berdinak. Ez dut eztabaida horretan sartu nahi, eta horrexegatik, mozioa kenduko dut. Abstentzioa izango da nire botoa gainerakoetan.

Añade el Sr. Del Vigo, del grupo político municipal Orain, lo siguiente: Dicho esto, voy a hacer un pequeño comentario. Voy a retirar esta moción, porque me parece lamentable que en un tema tan sensible, nos intentemos pisar unos grupos con otros presentando las mismas mociones. He presentado una, la Sra. Ruiz ha presentado otra, y el PNV otra. Al final, los tres son lo mismo. No quiero entrar en ese debate y por ello, retiro la moción. Me abstendré en el resto de mociones.

Kendu egin da mozioa.

La moción queda retirada.

**(B).- Manuela Ruiz Vivanco Andrea (Atxikigabeko zinegotzia).- Gaia: Martxoaren 8ko greba**. Ondoren alkate jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Mozioa dela-eta, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos; Sopelako Euskal Sozialistak eta Denok Batera Sopela udal talde politikoek batera aurkeztu dute osorako zuzenketa bat. Lehenik eta behin, osorako zuzenketa irakurriko da, ondoren eztabaida egingo da eta, onesten bada, mozioaren hasierako testuaren ordez jarriko da. Osterantzean, Ruiz andreak aurkezturiko mozioa jorratuko da.

**(B).- Moción no resolutiva presentada por Dª Manuela Ruiz Vivanco (Concejala no adscrita) relativa a Huelga 8 de marzo**. A continuación, toma la palabra el Sr. Alcalde para indicar: Sobre esta moción, se ha presentado una enmienda a la totalidad conjuntamente por los grupos políticos municipales Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos; Socialistas Vascos de Sopela y Denok Batera Sopela. En primer lugar, se procederá a la lectura de la enmienda a la totalidad, después al debate y si la misma se aprueba, sustituirá al texto original de la moción, de lo contrario, se tratará la moción presentada por la Sra. Ruiz.

Jarraian, Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos udal talde politikoko Leire Basauri andreak hartu du hitza, zuzenketa irakurtzeko. Hauxe dio hitzez hitz:

Después, toma la palabra Dª Leire Basauri, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos y procede a la lectura de la enmienda, que es del siguiente tenor literal:

***"Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?***

***"¿Qué pasa si las mujeres no cuidan, no consumen, no trabajan y no participan?***

*Hausnarketa horrek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.*

*Esta reflexión llevó el año pasado al movimiento feminista a lanzar una convocatoria de huelga internacional de mujeres en más de 70 países y este año 2018 se repite bajo el lema de "Emakumeok Planto. Nosotras paramos". La huelga tiene por objeto visibilizar el impacto que tiene en nuestra sociedad el trabajo de las mujeres y exigir que este sea reconocido.*

*Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak,*

*El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin la realización de actividades imprescindibles para la sostenibilidad de la vida*

*adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.*

*Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoitzitako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.*

*Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.*

*Eta egiten dituzten zereginez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonek denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.*

*Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.*

*Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna*

*como el cuidado de las personas (niñas y niños, mayores y personas dependientes…) o el mantenimiento de las tareas del hogar. Estas labores, mayoritariamente no remuneradas, recaen principalmente en las mujeres. Sin su contribución la sociedad se pararía.*

*Gran parte del trabajo de las mujeres está invisibilizado y no se contabiliza. Esto implica no solo que se subestime el valor de los bienes y la riqueza producidas en los hogares; además, niega e invisviliza las horas y la contribución económica que suponen estas labores realizadas mayoritariamente por mujeres, e invisibiliza asimismo el enorme ahorro social que suponen en servicios de cuidado, sanitarios, sociales y de protección.*

*Si tenemos en cuenta las horas dedicadas dentro y fuera del mercado de trabajo, las mujeres asumen en nuestra sociedad el 56 % del mismo, pero realizan el 74% del trabajo no remunerado. Además, muchos de los trabajos feminizados, ocupados principalmente por mujeres, forman parte del empleo precarizado o incluso de la economía sumergida en el mercado laboral. Además, en este sector se emplean muchas mujeres migradas, que han tenido que delegar el cuidado de su familia en otras mujeres de sus entornos de origen, construyendo así las cadenas globales de cuidado.*

*Y es que no se trata únicamente de las tareas que realizan, sino que como consecuencia del tiempo que las mujeres dedican al cuidado y a las tareas del hogar, los hombres disponen de más tiempo que emplean en el desarrollo de su carrera profesional y laboral, o de cualquier actividad social o de ocio a la que las mujeres tienen grandes dificultades de acceso.*

*Este uso diferencial del tiempo constituye un importante freno para el avance en el objetivo de la igualdad traduciéndose en la perpetuación de los estereotipos sobre hombres y mujeres y en un obstáculo estructural para conciliar las diferentes responsabilidades atribuidas por género, entre otras consecuencias.*

*Por todo ello, resulta imprescindible reconocer socialmente los cuidados como condición indispensable para la sostenibilidad de la vida, apoyar una nueva organización social de los cuidados que redistribuya su provisión, impulsar la corresponsabilidad de los hombres, hacer*

*sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.*

*Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ,* ***Sopelako Udalak hitza ematen du:***

➢ *Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzeko.*

➢ *Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.*

➢ *Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.*

➢ *Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.*

***Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deitu diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten."***

Ondoren, Orain udal talde politikoko Juan Ignacio Del Vigo jaunak hartu du hitza, hau adierazteko: Penagarria iruditzen zait nork bere aldetik egitea, mozioaren gloria bereganatzeko. Ez dut parte hartuko. Abstenituko naiz.

Ondoren, Denok Batera Sopela udal talde politikoko Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: EUDELen testua osoa dela iruditzen zaigu, bat gatoz esaten denarekin, baina joan den esatean eginiko testua eztabaidara ekartzea gustatuko litzaioke gure taldeari, martxoaren 8ko grebaren aldekoa eta Sopela Gurean argitaratuko dena. 1975eko emakumeen greban, Islandiako emakumeen %90ek uko egin zion lan egiteari, etxe barruan nahiz kanpoan. Haurtzaindegiak eta eskolak itxi

*visible la pérdida de talento de las mujeres en espacios de decisión y poder que provoca este modelo de organización social, alinear la cultura organizativa y empresarial con la igualdad y fortalecer los servicios públicos que favorezcan la conciliación entre vida laboral y personal.*

*CONSCIENTE de esta situación,* ***el Ayuntamiento de Sopela se compromete a:***

➢ *Desarrollar programas de sensibilización y formación dirigidos a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres.*

➢ *Contribuir en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la corresponsabilidad social en los cuidados.*

➢ *Desarrollar las políticas municipales con perspectiva de género.*

➢ *Incidir en la trasmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.*

***Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres."***

A continuación, toma la palabra D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain para señalar: Me parece lamentable que uno tire por un lado por la gloria de llevarse la Moción. No voy a participar. Me voy a abstener.

Acto seguido toma la palabra D.Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela para indicar: El texto de EUDEL nos parece completo, compartimos su contenido, pero a nuestro grupo le gustaría aportar al debate el texto que elaboró la semana pasada, en apoyo de la huelga del 8 de marzo y que será publicado en Sopela Gurea. En la huelga de mujeres de 1975, el 90% de las mujeres en Islandia se negaron a trabajar, tanto dentro como fuera de casa. Las guarderías y

zituzten, eta etxeko lanaz arduratzen ziren emakumeek bat egin zuten geldialdiarekin. Beraz, gizonek seme-alaben kargua hartu behar izan zuten; etxean gelditu ziren edo lanera eraman zituzten. Herrialdea geldiaraztea lortu zuten, eta erreforma handiak eragin zituzten legegintzan eta gizartean. Martxoaren 8ko greba feministaren helburua askoz handizaleagoa da, ordea: emakumearen kontrako indarkeria desagerraraztea, abortua zigor kodetik kentzea, etxeko lana eta zaintza lana aitortzea, soldaten arteko aldea kentzea eta lan baldintza duinak lortzea, gaikuntza ezartzea irizpide bakar hautaketa-prozesuetan, familia eta sexualitate eredu desberdinen alde egitea eta hezkuntza publiko, laiko eta feministaren alde egitea.

Ondoren, Manuela Ruiz andreak (atxikigabeko zinegotzia) hartu du hitza, hauxe adierazteko: Guk mozioa Sopelako EHBildu udal talde politikoarekin adostuta geneukan, eta justifikazioa Vio jaunak defendatuko du.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Guillermo Vio jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Hainbat gauza komentatuko ditut. Harritu egin gara Del Vigo jaunak aurretik aurkezturiko mozioa kendu duela ikusita eta mozio bera dela esan duelako. Justifikazio bera da, baina eskaera desberdinak. Ruiz andreak guregana jo zuen mozioa adosteko, guk proposamenak egin genituen eta ildo horretan adostu dugu. Diodanez, justifikazio bera da, baina zure mozioan hauxe dioen tokian: *"1. Sopelako Udalak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu gure Konstituzioan eta gure legean greba egiteko ezarritako oinarrizko eskubidea erabiltzen dela bermatzeko…"* gureak hauxe dakar: "*1. Sopelako Udalak bat egiten du grebarekin hainbat arlotan, lan arloan,…..*". Hasieratik bertatik nahikoa desberdinak dira. Zure mozioan hauxe dioen tokian: 2*. Sopelako Udalak laguntza, publizitatea eta sostengua ematen ditu deituriko emakumeen geldialdirako …."* Gureak hauxe dakar: "2*. Sopelako Udalak dei egiten die udalerriko emakumeei grebarekin bat egin dezaten eta herritarrei ……."* Hasieran, zioen adierazpena berdina izan daiteke, bat gatozelako horrekin, Eudelenarekin ere bat gatozen moduan. Azken horri dagokionez, EUDELena dela-eta, batzuek datu batzuk darabiltzate, eta beste batzuek beste batzuk, baina bat gatoz, eta gauza bera dela esatea gutxienez mozio sinplistaren gaineko azalerako irakurketa egitea da. Eudelenari dagokionez,

escuelas cerraron y las mujeres encargadas del trabajo doméstico se sumaron al paro. Así que los hombres tuvieron que encargarse del cuidado de los hijos e hijas, quedándose en casa o llevándoselos al trabajo. Consiguieron parar el país y desencadenaron importantes reformas legislativas y sociales, pero la huelga feminista del 8 de marzo pretende mucho más, erradicar la violencia contra la mujer, eliminar el aborto del código penal, reconocer el trabajo doméstico y de cuidados, eliminar la brecha salarial y conseguir condiciones laborales dignas, implantar la capacitación como único criterio en procesos de selección, defender los diferentes modelos de familia y sexualidad, defender una educación pública, laica y feminista.

Posteriormente, toma la palabra Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita) para señalar: Nosotros, esta moción la habíamos consesuado con el grupo político municipal Sopelako EHBildu y la justificación la defenderá el Sr. Vío.

Toma la palabra el Sr. Guillermo Vio, del grupo político municipal Sopelako EHBildu indicando: Comentar varias cosas. Nuestra sorpresa por la retirada de la moción anterior presentada por el Sr. Del Vigo y porque ha comentado que es la misma moción. La justificación es la misma pero las peticiones, diferentes. La Sra. Ruiz acudió a nosotros para consensuar esta moción, nosotros elaboramos nuestras propuestas y en esa línea, la hemos consensuado. Como digo, la justificación es la misma, pero donde en tu moción pone *"1. El Ayuntamiento de Sopela tomará las medidas necesarias para garantizar el ejercicio del derecho fundamental de huelga previsto en nuestra Constitución y en nuestra ley, …"* en la nuestra pone "*1. El Ayuntamiento de Sopela se suma a la convocatoria de huelga en varios ámbitos, laboral,…..*". Ya en el comienzo, son bastantes distintas. Donde en tu moción pone 2*. El Ayuntamiento de Sopela da su apoyo, publicidad y respaldo al paro de mujeres convocado …."* en la nuestra pone "2*. El Ayuntamiento de Sopela llama a las mujeres del municipio que secunden la huelga y a la ciudadanía ……."* En principio, la declaración de motivos puede ser la misma porque la compartimos, como compartimos también la de Eudel. Respecto a esta última, la de EUDEL, unos utilizan unos datos, y otros, otros datos, pero las compartimos, y decir que se trata de lo mismo, es hacer una lectura, cuando menos, muy superficial de la moción

egia esan, ez dugu ulertzen zergatik aurkezten den osorako zuzenketa, modu horretara behartuta baikaude Eudelenari ezetz esatera, ondoren gurearen alde egin ahal izateko. Gaur goizean posta elektronikoak bidali dizkiogu elkarri EAJko bozeramaileak eta nik neuk edukazio onarekin, zuzen eta lagun artean bezala, eta esan diodanez, EUDELen batzorde exekutiboan EHBilduk ez zuen testu horren alde egin eta, beraz, ezin dugu orain horren alde egin, baina ez dugu eragozpenik jarriko aurrera atera dadin. Abstentzioa izango da gure botoa, aurrera aterako da eta gero grebaren alde egingo dugu. Mozioa sakon aztertuta, uste dugu EUDELenak, Sopelari dagokionez behintzat, errespetu osoarekin, tranpa egiten duela. Hauxe dio mozioak: "*Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deitu diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten".* Ez dugu edozein ekitaldi deitzen, greba baizik. Mugimendu feministak antolatu duen 4 orduko greba hain zuzen ere. Inoren akats handiari erreparatu baino lehen, gure akatsei erreparatu behar diegu. Guk ere geure gain hartu dugu erantzukizuna gobernu taldean egon garenean. Herri honetan, dena delakoagatik, ahula da mugimendu feminista, baina udal aldizkarietan udalak antolatutako ekintzatzat agertzen ziren jarduerak -eta erantzukizuna geure gain hartzen dugu, gu ere izan garelako Alkatetzan-: 2012an Xabier Aburruzagaren kontzertu bat izan zen, 2013an Txarangoren kontzertu bat, 2014an emakumeen sozietate bateko bazkaria Euskal Senan, 2015ean abantaila bat, "Panpin etxea" antzezlana, non egungo emakumearen eta gizartearen eginkizuna jorratzen den. 2016an, tarta lehiaketa martxoaren 8an, eta 2017an Oliver magoaren emanaldia. Beraz, greba deialdia dagoenean, udalari eskatzen diogu hala adieraz dezala, greba deialdia ez bada aipatzen, ez dugu horren alde egingo. EUDELi ezetz esan diogu, besterik gabe emakumeek grebarako duten eskubidearen alde gaudelako, eta kasu honetan, ez da eskubide hori defendatzen.

simplista. Respecto a la de Eudel, sinceramente, no entendemos el porqué se presenta la enmienda a la totalidad, porque de esta manera estamos obligados a decir no a la de Eudel para luego, poder defender la nuestra. Cuando esta mañana ha habido un cruce amigable, educado, y correctísimo de mails entre la Portavoz del PNV y yo mismo, etc, y le he comentado, tú sabes que en la comisión ejecutiva de EUDEL, EHBildu no apoyó este texto por lo que no lo podemos apoyar, pero no pondremos ningún impedimento para que salga adelante. Nos abstendremos, saldrá adelante y después defenderemos la huelga. Entrando en profundidad, creemos que la de EUDEL, por lo menos referida a Sopela, con todos los respetos, se hace trampa. En esta moción se dice: "*Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres."* No llamamos a cualquier acto, llamamos a una huelga. Una huelga de 4 horas que ha organizado el movimiento feminista. Antes de ver la viga en el ojo ajeno, tenemos que ver la paja en el propio. Nosotros también asumimos nuestras responsabilidades cuando hemos estado en el equipo de gobierno. En este Pueblo, por lo que sea, el movimiento feminista es débil, pero las actividades que han venido reflejadas en las revistas municipales como organizadas por este Ayuntamiento, y asumimos la responsabilidad porque también nosotros hemos estado en Alcaldía, en el 2012 fue un concierto de Xabier Aburruzaga, en el 2013, un concierto de Txarango, en el 2014 una comida de una sociedad de mujeres en el Euskal Sena, en el 2015 una ventaja, la obra de teatro "Casa de Muñecas" donde se trata el papel de la mujer y la sociedad actual. En el 2016, concurso de tartas el día 8 de marzo y en el 2017, una actuación del mago Oliver. Entonces, que desde el Ayuntamiento cuando hay una convocatoria de huelga llamamos a lo que se diga, sinceramente no lo vamos a apoyar. Nuestro no a EUDEL es simple y llanamente porque apoyamos un derecho a la huelga de mujeres, que, en este caso, no se defiende.

Jarraian, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikoko Leire Basauri andreak hartu du hitza: Gure ustez, ahalik eta alde gehienek lortutako akordioa da adostasuna. Esan behar dut gurekin gaiaz hitz egiten ere ez zarela ahalegindu. Ez dakit

Acto seguido toma la palabra Dª Leire Basauri, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para señalar: Entendemos el consenso como un acuerdo alcanzado por el mayor número posible de partes. Decir que con nosotros, ni siquiera te

udalbatzako gainerako kideek esan dezaketen eurekin negoziatu duzula, baina gurekin saiatu ere ez zara egin. Ez duzu adostasuna bilatu. Beste gauza baten bila ibiliko zinen, uneko akordioa, edo deitu beste modu batean, baina adostasuna ez. Zuzenketaren aurkezpenari dagokionez, Vio jaunak esan duen posta elektroniko bidez trukean, pozten naiz zuretzat lagun arteko zerbait izateaz, hala izan delako, baina horietako batean jakinarazi dizuet Eudelena aurkezteko asmoa genuela, ez dugulako lortu adierazpen instituzional gisa ateratzeko beharrezko aho bateko erabakia. Izan ere, horretarako, talde guztiok egon behar dugu adierazpenaren alde. Horrexegatik aurkeztu behar genuen eztabaidatuko ziren testuen zuzenketa gisa. Ez da inoiz izan inor zapaltzeko asmorik, ezta eztabaida saihesteko ere. Izan ere, badago eztabaida. Eztabaidatzen ari gara une honetan. Zuzentzat jotzen ditugun jarreren alde egiteko aukera dugu orain. Gaiari helduta, gure ustez gizartearen aldaketa globala da, eta beraz, bakarrik emakumeen geldialdia deitzea gure ustez diskriminazio bikoitza da. Soilik emakumeek parte har dezatela nahi dugu gizarte aldaketa horretan? Guk ulertzen dugun aldaketa globalean guztion parte-hartzea behar da. Ulertzen dugu grebarako deialdia izatea, eskubidetzat jotzen dugu. Greba egiteko edo ez egiteko. Erakundea garen aldetik, gure ustez ez da bidezkoa guk greba deitzea edo grebaren alde egitea. Norberak du greba egiteko edo ez egiteko eskubidea, eta biak errespetatzen ditugu. Erakundea garen aldetik, gutxieneko zerbitzuak bermatu behar ditugu nahitaez. Horraino iristen da guri dagokigun zatia. Hauxe dio zuzenketaren azken paragrafoak: *“Azkenik, herritarrei dei egiten die antolatu eta deitu diren ekitaldietan eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten…”* Tarta lehiaketa eta emakumeen greba, hau da, bakoitzak erabaki edo aukeratuko du nora joan, zeinen alde egin eta zer aberastu bere presentziarekin. Beraz, hori ere emakumeen grebaren aldeko babes inplizitua da.

has molestado a hablar del tema, desconozco si el resto de compañeros de la Corporación podrán decir que has negociado con ellos, con nosotros ni lo has intentado. El consenso no lo has buscado. Habrás buscado otra cosa, un acuerdo puntual, o llámalo de otra manera, pero consenso no. Respecto a la presentación de la enmienda, en el intercambio de mails que ha comentado el Sr. Vío, me alegro que lo entiendas como algo amigable porque así ha sido, pero en uno de ellos os he indicado la intención que teníamos de presentar la de Eudel, porque no alcanzábamos la unanimidad necesaria para sacarlo como declaración institucional, porque para ello hace falta que todos los partidos estemos a favor de dicha declaración. Por eso teníamos que presentarla como enmienda a los textos que se iban a debatir. No ha habido intención en ningún momento, de pisar nada a nadie, ni de evitar ningún debate, de hecho, el debate existe. Ahora mismo estamos debatiendo. Tenemos ocasión ahora de defender las posturas que creamos correctas. Entrando en materia, entendemos que la necesidad de cambio social es global, y por tanto, convocar únicamente a un paro de mujeres lo entendemos como una doble discriminación. ¿Estamos implicando nuevamente sólo a las mujeres para alcanzar ese cambio social? Lo que nosotros entendemos como cambio global, implica a todos y todas. Entendemos el derecho a la Huelga como tal, como un derecho. A hacerla o no hacerla. Como institución, no creemos que proceda que nosotros convoquemos o secundemos una huelga. Cada individuo tiene el derecho de hacerla o no, y respetamos a ambos. Como institución nos vemos en la obligación de garantizar unos servicios mínimos. Hasta ahí llega la parte que nos toca. El último párrafo de la enmienda dice “: “*Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen...”*. El concurso de tartas y la huelga de mujeres, es decir, cada cual decide o elige a qué acudir, qué secundar y qué enriquecer con su presencia, luego aquí también se da un apoyo implícito a la huelga de mujeres.

Ondoren, Sopelako Euskal Sozialistak udal talde politikoko Mª Teresa Fernandez andreak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Bozeramaileen batzarrean esan zenez, Eudelen proposamena ekarriko zen eztabaidatzeko. Horren gainean, galdetu egin dugu ea norbaitek

Después, toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos de Sopela para indicar: En la Junta de Portavoces ya se dijo que se iba a traer a debate la propuesta de Eudel. Sobre esto, hemos preguntado si alguien tenía algo

ezer esan behar zuen, eta inork ez du erantzun, Jonek izan ezik, gaur bertan. Hainbat egun igaro dira dagoeneko. Ikusi dugunez, Juantxuk egun batean mozio bat aurkezten du, eta handik egun batzuetara, berdina aurkeztu du Manuelak. Bat nator Leire Basaurik eman dituen argudio guztiekin; izan ere, elkarrekin egin dugu testua. Gure ustez, hainbat gairen inguruko gogoeta egin beharko genuke, eta hain gai garrantzitsuetan, adostasuna lortzen saiatu guztiok, bakoitzak egin beharreko ekarpenak egin ditzala. Ez da ondo gelditzen hain gai garrantzitsuan ikuspegi desberdinak izatea gauza bera esateko. Azpimarratu behar dugu nire alderdia norberaren askatasunaren alde dagoela, greba egiteko edo ez egiteko. Hortik aurrera, udal talde bakoitzak, talde bakoitzak bereziki, nahi duena jar dezake sare sozialetan, web orrian, etab., baina erakundea ezin jar daiteke zentzu baten edo bestearen alde.

que decir y nadie ha contestado, salvo Jon hoy mismo. Han pasado ya varios días. Vemos que Juantxu presenta un día una moción, y al cabo de unos días, se presenta por Manuela una igual. Suscribo todos los argumentos esgrimidos por Leire Basauri, de hecho hemos conformado conjuntamente el texto. Considero que debiéramos reflexionar sobre estos asuntos, y en asuntos de tanta trascendencia, intentar todos llegar a un entendimiento, haciendo cada uno las aportaciones que tenga que hacer, porque no queda muy bien que en una cosa de este calado tengamos visiones dispares para acabar diciendo lo mismo. Incidir también que mi partido apoya la libertad de cada uno, en secundar o no la huelga. A partir de ahí, creo que cada grupo municipal, cada partido en particular, puede poner lo que quiera en sus redes sociales, web, etc pero una institución no debe significarse en un sentido o en otro.

Ondoren, Manuela Ruiz andreak (atxikigabeko zinegotzia) hartu du hitza, hau adierazteko: Nire ustez erakundeek parte hartu behar dute, emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea, zoritxarrez, oraindik oso agerikoa baita XXI. mendean ere. Nire ustez, erakunde guztiok egin beharko genuke greba feministaren alde, eta horren alde egiteko beharra dugula iritzten diot, ikusgai gaude pertsonak garelako, erantzukizuna dugu, eta uste dut oso garrantzitsua dela emakumeok greba feminista amaigabea egitea. Bat nator gizonen eta emakumeen eskubide berdinak izatearekin, baina kasu honetan, emakumeok sentitzen dugu diskriminazioa. Horrexegatik, uste dut emakumeok greba egin behar dugula, eta mundua gelditzen bada -ez da geldituko baina-, horretarako daude gizonak, gu lanera joango ez garen 4-8 ordu horietarako, eurek egingo dute gure lana, baina garrantzizkotzat jotzen dut erakundeek greba feminista horren alde egitea.

Después toma la palabra Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita) para señalar: Yo sí que creo que las instituciones tienen que tomar partido, porque la brecha salarial entre hombres y mujeres, desgraciadamente, en el siglo XXI todavía es muy evidente. Creo que esta huelga feminista debiéramos de apoyarla desde las instituciones y considero que tenemos la obligación de apoyarla porque somos personas que tenemos visibilidad, responsabilidad y que creo que es muy importante que las mujeres hagamos una huelga feminista interminable. Estoy de acuerdo en los mismos derechos de hombres y mujeres, pero en este caso, somos las mujeres las que sentimos la discriminación. Por eso creo que las mujeres tenemos que hacer la huelga, y si se para el mundo, que no se parará, que para eso están los hombres, para esas 4-8 horas que nosotras no vamos a trabajar, nuestro trabajo lo realizarán ellos, pero considero importante que desde las instituciones se apoye esta huelga feminista.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal talde politikoko Guillermo Vio jaunak hartu du hitza: Erakundeek ez dute deitu martxoaren 8ko greba. Bat egiten dute, babesa ematen diote. Talde feministak deitu du greba. Erakundeek iritzia eman dute gai askotan, eta askotan ez dira denon gustukoa izan. Zenbait gaitan ematen dute iritzia eta beste batzuetan ez. Gogorra egiten zait bakarrik emakumeen grebaren alde egitea, oso ondo deritzot, zeren eta horixe baita egun horretako helburua,

Acto seguido toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopelako EHBildu, para señalar: La Huelga del 8 de marzo no está llamada por las Instituciones. Se suma, la apoya. La huelga la convoca el movimiento feminista. Las instituciones se han posicionado en cantidad de temas, en muchísimos y muchas veces no del gusto de todos. Hay algunos temas en los que se posiciona y en otros no. Se me hace duro defender una huelga solo de mujeres, me parece correctísimo y perfecto

emakumeek egiten dutena ikusaraztea. Ez bakarrik lanaren arloan, lanetik kanpo ere bai, laguntza arloan, familian. 4 orduko geldialdia egin dezatela. Eginkizun asko ezartzen direlako soilik emakumea edo alaba izateagatik. Horixe da ikusarazi nahi dena. Sinboloa da, eta batzuetan, sinboloak bere egin behar dituzte sinbolook bere gain hartu behar dituztenek, eta kasu honetan emakumea da, gizonen %100eko babesarekin. Izan daiteke emakumeek etxeetan edo lanpostuetan egin gabe utzitako lanak eginez, emakume lankideei eginiko deskontua gurekin %50ean egitea eskatuz. Badira moduak grebari babesa emateko, baina egoera hori ikusaraztea da helburua. Bilduk erantzuna eman izan die posta elektronikoei, eta argi esan dugu ez dugula kontra egingo, baina ezin dugu alde egin, gero greba defendatuko dugulako. Zuzenketa beste modu batean aurkeztu balitz, zatizko zuzenketa adibidez, gurea ez zen kenduko eta abstentzioa izango zen gure botoa, baina orain ez, berriz diot, ezin dugu aldeko botoa eman. Ezetz esate hori ez da ulertu behar EUDELi ezetz esatea denik, baizik eta egun horretan zehazki nahikoa ez dela iruditzen zaigula.

porque ese es el objetivo de ese día, visualizar lo que hacen las mujeres. No solamente en el mundo laboral, también en el no laboral, en el asistencial, en el mundo de la ayuda, en el familiar. Que hagan ese paro de 4 horas. Que muchas funciones están asignadas por el hecho de ser madre o hija. Eso es lo que se quiere visualizar. Es un símbolo y a veces, los símbolos los tiene que asumir quien los tiene que asumir, y en este caso es la mujer, con el apoyo al 100% de los hombres. Puede ser haciendo los trabajos que las mujeres pueden dejar de hacer en los hogares o puestos de trabajo, diciendo que el descuento que se les haga a las compañeras se reparta con nosotros al 50%. Hay formas de colaborar con esta huelga, pero lo que se pretende es visualizar una situación. Bildu ha estado respondiendo a los mails y lo hemos dicho claramente, no vamos a oponernos, pero no lo podemos apoyar porque después defenderemos la huelga. Si esta enmienda se hubiera presentado de otra manera, parcial, no se hubiera retirado la nuestra y nos abstendríamos, pero ahora, repito, no podemos votar a favor. Entiéndase el no, pero no como un rechazo a la de EUDEL, sino porque nos parece insuficiente en este día en concreto.

Azkenik, Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos udal talde politikoko Leire Basauri andreak hartu du hitza: Nire ustez, erakundeak bere iritzia ematen du EUDELen Adierazpenaren alde eginez. Utzi zuzenketa berriz ere irakurtzen: *“Herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deitu diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.* Esplizituki ematen ari da bere iritzia, ez dakit non ez den iritzi hori agertzen.

Por último toma la palabra Dª Leire Basauri, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos, para señalar: Considero que la institución se posiciona apoyando la Declaración de EUDEL. Me váis a permitir que la vuelva a leer: “*Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo. Día internacional de las mujeres.”* Explícitamente se está posicionando, no veo dónde no se está posicionando.

Ondoren, batera aurkezturiko zuzenketa bozkatu da, eta hauxe izan da emaitza:

A continuación se somete a votación la enmienda presentada conjuntamente, arrojando el siguiente resultado:

Kontrako botoak: Guillermo Vio, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekoetxea, Juan Mª Sanchez jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak eta Manuela Ruiz andrea (atxikigabeko zinegotzia). Abstentzioa: Juan Ignacio Del Vigo jauna, ORAIN udal talde politikokoa.

Con los votos en contra de D. Guillermo Vío, Dª Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, Dª Ione Aurrekoetxea, D. Juan Mª Sánchez y D. Miguel A. Tapia del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Manuela Ruiz (concejala no adscrita) y la abstención de D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal ORAIN.

<u>Osoko bilkurak, gehiengoz, hauxe erabaki du:</u>

<u>El Pleno, por mayoría, acuerda</u>

Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Sopelako Euskal Sozialistak eta Denok Batera Sopela udal talde politikoek emakumearen nazioarteko eguna dela-eta martxoaren 8rako deituriko grebari buruz elkarrekin aurkezturiko zuzenketa onestea.

Erregu eta galderak

Hauxe adierazi du Jon Andoni Gerediaga jaunak: Denok Batera Sopelak 5 erregu edo eskaera eta 5 galdera aurkeztuko ditu. Luzeak direnez eta transkripzioa errazte aldera, kopia emango diogu idazkaritzari. Luzeak direnez, gure ustez ez da beharrezkoa txanda honetan galderei erantzutea, baina ahalik eta gehien erantzutea gustatuko litzaiguke.

Erreguak Alkatetzeari 2018ko otsailaren 22ko OSOKO BILKURAN:

1) DENOK BATERA SOPELAK Alkatetzari eskatzen dio komunikatu bat argitara dezala hurrengo SOPELA GUREAN, URTARRILEKO Sopela Gurean argitaraturiko informazio hau ZUZENTZEKO. Izan ere, gaur egun EZ DA EGIA: "*Gobernu taldeak eta DB-TUk berriz ekin diote haurren parkeak berritzeari buruzko lankidetza-itunari*", urtarrilaren 11n ere zuzentzeko eskatu genuen moduan.

Ez da egia: berriz ere lankidetza-hitzarmenari ekiteko, AURRETIAZKO 2 BALDINTZA hauek adostu zituen DENOK BATERA SOPELAK horretarako, baina gaur egun oraindik ez dira betetzen:

*ORAINTSU HASIA:*

a) JAUREGIZAR plazako pirata ITSASONTZIA konpontzeko agindua ematea berehala (2017ko abenduaren 9an). (Momentuz oraindik ez da konpondu).

Alkate jaunaren erantzuna: Konpontzen ari da.

Gerediaga jaunak gehitu du: Konpontzen ari da? Barkatu. Orain hasi bada... Badira egun batzuk handik pasatzen ez naizena. Argitalpenean agertzen zen egunean, ez zegoen konponduta. Edozelan ere, garrantzitsuena b) horretan dago.

b) JAUREGIZAR plaza osorik berritzeko IDEIA

Aprobar la enmienda presentada conjuntamente por los grupos políticos municipales Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos; Socialistas Vascos de Sopela y Denok Batera Sopela en relación a la huelga de 8 de marzo, día internacional de la mujer.

Ruegos y Preguntas

Por parte de D. Jon Andoni Gerediaga, se indica: Denok Batera Sopela va a presentar 5 ruegos o solicitudes, y 5 preguntas. Debido a la extensión y para facilitar la transcripción, entregaremos copia a Secretaría. Debido a esta extensión, consideramos que no es necesario que se conteste a las preguntas en este turno, pero sí nos gustaría se fueran contestando en la mayoría de lo posible.

RUEGOS a Alcaldía en PLENO del 22 de Febrero de 2018:

1) Desde DENOK BATERA SOPELA solicitamos a Alcaldía que se publique un comunicado en próximo SOPELA GUREA para RECTIFICAR la siguiente información publicada en Sopela Gurea de ENERO y que, a fecha actual, NO ES CIERTA: "*El Equipo de Gobierno y DB-TU retoman el pacto de colaboración sobre las reformas de los parques infantiles*", tal como ya solicitamos que se rectificara el pasado 11 de Enero.

No es cierta, porque para reanudar su colaboración, DENOK BATERA SOPELA acordó con Alcaldía y por escrito, las siguientes 2 CONDICIONES PREVIAS que aún, a día de hoy, siguen sin cumplirse:

*INICIADA RECIENTEMENTE:*

a) Decretar ya (a 9 de Diciembre de 2017) la reparación del BARCO pirata de Plaza JAUREGIZAR. (Que de momento sigue sin repararse).

A lo que contesta el Sr. Alcalde: Está reparándose.

Añade el Sr. Gerediaga ¿Está reparado? Disculpa. Si se ha empezado ahora…levo unos días sin pasar por allí. A la fecha en la que aparecía en la publicación, no estaba reparado. En cualquier caso, la más importante en la b).

b) Convocar YA un CONCURSO de IDEAS

LEHIAKETARAKO deialdia egitea BEREHALA, plazako behin betiko jarduketak erabakitzeko aurretiazko urrats gisa. Adostasunez erabakiko dira lehiaketako baldintzak eta eskakizunak, eta taldeek, herritarrek, etab. hartu ahal izango dute parte. Zabalik egongo litzateke.

para la reforma integral de la Plaza JAUREGIZAR, como paso previo para decidir las actuaciones definitivas en dicha Plaza. Las condiciones y exigencias del Concurso se acordarán por consenso, y podrán participar equipos, ciudadanos… Estaría abierto.

2) ZIPIRIÑEKO HAUR JOLASEN EREMUAN ZIPIRIÑE eskola gauez zabaltzen den ordutegian argiztapena izatea eskatzen dugu.

2) Solicitamos que la zona de JUEGOS INFANTILES de ZIPIRIÑE disponga de ILUMINACION durante el Horario de Apertura nocturna de la Escuela ZIPIRIÑE.

3) Udalak gutxienez SOPELAN ENPLEGU UDAL PLANA martxan jartzeko posibilitate juridikoari buruzko informazioa emateko eskatzen dugu.

3) Solicitamos que, al menos, sea informada jurídicamente por el Ayuntamiento la posibilidad de poner en marcha un PLAN MUNICIPAL de EMPLEO en SOPELA.

4) SOPELAKO 2013KO IRISGARRITASUN PLANAK dakartzanen artean EKINTZA KONKRETUAK berehala martxan jar ditzala eskatzen diogu udalari. Badakigu asmoa dagoena, beharbada irisgarritasun plan berria berriz idazteko. Gure ustez, daukagun Irisgarritasun Planak, uste dut gainera 30.000 € kosta zitzaigula, balia daitezkeen elementu asko ditu, gaur egun praktikan jar litezkeenak.

4) Solicitamos que el Ayuntamiento ponga en marcha, desde ya, ACCIONES CONCRETAS de entre las recogidas por el PLAN de ACCESIBILIDAD de SOPELA 2013. Sabemos que hay intención, quizá de volver a redactar un plan de accesibilidad nuevo. Nosotros entendemos que el Plan de Accesibilidad del que disponemos y que, me parece recordar, costó más de 30.000 €, tiene muchos elementos aprovechables que hoy en día se podrían poner en práctica.

5) Herritar guztiek Sopelan eskuragarri dauden LAGUNTZA eta DIRU-LAGUNTZA guztiak erraz eta intuitiboki udal WEB orrian eta SOPELA GUREAN eskuratzeko moduan izatea eskatzen dugu, gobernu taldeak DENOK BATERA SOPELAREKIN 2015eko abenduan adostu zuen moduan.

5) Solicitamos que todas las AYUDAS y SUBVENCIONES disponibles en Sopela sean ACCESIBLES de manera fácil e intuitiva, a todos los ciudadanos, en la WEB municipal y en SOPELA GUREA, tal como el Equipo de Gobierno acordó con DENOK BATERA SOPELA en Diciembre de 2015.

GALDERAK alkatetzari 2018ko otsailaren 22ko OSOKO BILKURAN:

PREGUNTAS a Alcaldía en PLENO del 22 de Febrero de 2018:

1) Noiz erantzungo diren DENOK BATERA SOPELAK 2018ko URTARRILAREN 19an eta URTARRILAREN 26an aurkezturiko galderak, hain zuzen udalak laster saldu nahi dituen UDALAREN jabetzapeko ORUBEEN ERABILERARI, OKUPAZIOARI eta ERAIKIGARRITASUNARI buruzko informazioa eskatzeko: I-2 ASU eta P-74 LOIOLA?

1) ¿Cuándo serán contestadas las preguntas, registradas por DENOK BATERA SOPELA en 19 de ENERO y también en 26 de ENERO de 2018, solicitando información de los USOS, OCUPACION y EDIFICABILIDAD de los SOLARES de propiedad MUNICIPAL I-2 en ASU y P-74 en LOIOLA que Alcaldía pretende vender próximamente?

2) Noiz erantzungo diren DENOK BATERA SOPELAK PARKEEN ETA HAURREN JOLAS-EREMUEN gainean eginiko galderak, 2018ko URTARRILAREN 19an eta URTARRILAREN 29an erregistratuak?:

2) ¿Cuándo serán contestadas las siguientes preguntas, relacionadas con las ACTUACIONES en PARQUES y ZONAS de JUEGOS INFANTILES, registradas por DENOK BATERA SOPELA con fechas 19 de ENERO y 29 de ENERO de 2018:

a) Mantendu egin dira GERNIKA parkean jarrita zeuden jolasak eta zabuak?

b) Mantendu egin dira Errekagana plazan jarrita zeuden jolasak eta zabuak?

c) Noiz eztabaidatuko dugu haurren jolasen EREMU ESTALIAREN KOKAPENIK egokiena?

d) Noiz egingo da JAUREGIZAR plazaren ERREFORMA OSORAKO PROZEDURA eztabaidatzeko eta erabakitzeko LEHEN BILERA? Noiz ezarriko da BILEREN EGUTEGIA?

e) DB-TUri kontsulta egin eta kontuan izango da JARLEKUAK, PAPERONTZIAK, ITURRIA eta bestelako hiri altzariak HAUTATZEKO ETA BERKOKATZEKO Sopelako parkeetan eta plazetan?

f) Jarduketa garrantzitsuren bat egingo da ITURRIETA parkean. Berritu egingo da Baleako URMAELA edo EZ? Kontuan hartuko da DENOK BATERA SOPELAK 2017ko EKAINAREN 21ean erregistraturiko PROPOSAMENA?

3) Noiz utziko zaio DENOK BATERA SOPELARI XORTU S.L.k udal LIBURUTEGIKO eraikinari eta URKO kiroldegiari buruz eginiko TXOSTENAK eskuratzen, hain zuzen 2017ko ABUZTUAREN 1ean eskatuak eta erregistratuak? Gainera, DENOK BATERA SOPELAK berriz eskatu zuen 2017ko urriaren 18ko Hirigintza Batzordean eskuratu ahal izatea.

4) Noiz izango ditugu honako sail hauetako INFORMAZIO BATZORDEEN AKTAK:

- EUSKARA, Hezkuntza eta Kultura.
- KIROLA, Aisialdia eta Gazteria.
- GIZARTE EKINTZA, Emakumea eta Berdintasuna.
- TURISMOA, Komunikazioa, Informatika eta Merkataritza.
- ENPLEGUA eta Sustapen Ekonomikoa.

Gutxi gorabehera 2017ko APIRILETIK EZ ditugu eskuratu (10 hilabete baino gehiago akta BARIK?

5) Sopelan "HERRITARREK PARTE HARTZEKO" hurrengo prozesuetan, udalak

a) ¿Se han conservado los juegos y columpios que estaban instalados en Parque GERNIKA?

b) ¿Se han conservado los juegos y columpios que estaban instalados en Plaza Errekagane?

c) ¿Cuándo debatiremos la UBICACION más idónea de una ZONA CUBIERTA de Juegos Infantiles?

d) ¿Cuándo se celebrará la PRIMERA REUNION para debatir y acordar el PROCEDIMIENTO para la REFORMA INTEGRAL de Plaza JAUREGIZAR? ¿Cuándo se establecerá el CALENDARIO de REUNIONES?

e) ¿Será DB-TU consultado y tenido en cuenta para la SELECCION y REUBICACION de BANCOS, PAPELERAS, FUENTES y otro mobiliario urbano en Parques y Plazas de Sopela?

f) En Parque ITURRIETA se realizará una actuación importante. ¿Se reformará también el ESTANQUE de La Ballena ó NO? ¿Se tendrá en cuenta la PROPUESTA al respecto registrada por DENOK BATERA SOPELA el 21 de JUNIO de 2017?

3) ¿Cuándo se permitirá, a DENOK BATERA SOPELA, el acceso a los INFORMES de XORTU S.L. sobre el edificio de la BIBLIOTECA municipal y sobre el Polideportivo de URKO, que fueron solicitados por registro el pasado 1 de AGOSTO de 2017. Además, DENOK BATERA SOPELA volvió a solicitar dicho acceso en la Comisión de Urbanismo de 18 de Octubre de 2017.

4) ¿Cuándo volveremos a disponer de ACTAS de las COMISIONES INFORMATIVAS de:

- EUSKERA, Educación y Cultura
- DEPORTE, Ocio y Juventud
- ACCION SOCIAL, Mujer e Igualdad
- TURISMO, Comunicación, Informática y Comercio
- EMPLEO y Promoción Económica

de las que NO se dispone desde aprox. ABRIL de 2017 (llevamos más de 10 meses SIN Actas).

5) Para los próximos procesos de "PARTICIPACION CIUDADANA" en Sopela ¿se

eman izan duen 10 EGUNEKO EPEA baino epe LUZEAGOA ezarriko da parte hartzeko, ALA EZ? DENOK BATERA SOPELAK askoz epe luzeagoak ezartzea eskatzen du. ZEIN epe aurreikusten du alkatetzak herritarrek parte hartzeko prozesu horietarako?

Hauxe adierazi du alkate jaunak: Zenbaiti emango diet erantzuna. Zipiriñe dela-eta, argiztapenean eta Zipiriñen edozein jarduketa egin baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren baimena behar da nahitaez, parke publikoa bada ere, baina hezkuntza gunea denez eta gurea bada ere, aurretik baimena eskatu behar da. Argiztatu daitekeen ala ez aztertuko da. Ez dut ikusten bereziki arazotsua denik ikuspegi teknikotik eta ekonomikotik. Enplegurako Udal Plana dela-eta, erantzuna eman nuen aurreko ezohiko osoko bilkuran. Baldin et DB-TUk txosten juridikoa nahi badu, DB-TUk, udal taldea den aldetik, emolumentu batzuk ditu eta erabil ditzake txosten juridikoa eskatzeko. Udal honek ez du eskatuko txosten juridikorik bere ustez bideragarri ez den gai batean. Baina ez dugu baloratuko udal honetako funtzionarioek alboko beste udalerri batzuetan egiten dutena. Irisgarritasun Planari dagokionez, ondo baino hobeto dakizunez, eta zuen eskaerari erantzuna emanez, kontratazio prozesua hasi zen. Gaur egun dagoen irisgarritasun plana dirudienez nahikoa ez zela ikusita, bi aldeek adostu zuten ez zela plan berria egingo, baizik eta egungo erabiliko zela, eta gogoratzen dudanez, DB-TUk lagunduko zigutela esan zigun, zeren eta udaleko zerbitzu teknikoa orduan nahikoa lanpetuta baitzegoen. Beraz, ez dago arazorik esertzeko, bizkor eta erraz egin daitezkeen jarduketak zein diren ikusteko eta erabiltzen hasteko. Laguntzak eta diru-laguntzak direla-eta, erraz eta intuitiboki eskuratzea zerbait objektiboa da. Zelan eskuratzen den aztertuko dugu berriz ere, eta ea hobetu daitekeen laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzeko modua. Galderei dagokienez, ez dut denborarik izan denak apuntatzeko. Espedientea eskuratzea dela-eta: inoiz eman ez bada, akatsa izan da, zeren eta zinegotziek 5 egun balioduneko epean jaso behar baitituzte espedienteak. Osterantzean, emanda dago administrazio isilunez. XORTU eskuratu ahal izateari dagokionez, baldin eta idatziz eskatu bada eta 5 egun balioduneko epean erantzunik eman ez bada, emanda dago administrazio-isilunez. Aktak direla-eta, egia da atzerapena izan dela, eta jakin badakit egiten ari direla zuen

establecerá un PLAZO para participar SUPERIOR a los 10 DIAS que Ayuntamiento ha venido concediendo ¿O NO? DENOK BATERA SOPELA solicita que se establezcan PLAZOS mucho mayores ¿CUAL será el plazo previsto por Alcaldía para participar en dichos Procesos Participativos?

El Sr. Alcalde indica: Te voy respondiendo a algunas. En cuanto a Zipiriñe, el tema de iluminación y cualquier actuación que se lleve a cabo en Zipiriñe tiene que ser previamente permitida por Gobierno Vasco, a pesar de que es un parque público, pero por ser espacio educativo y a pesar de ser nuestro previamente ha de pedirse ese permiso. Se analizará si se puede iluminar. No veo especialmente problemático desde el punto de vista técnico ni económico. En cuanto a un Plan Municipal de Empleo, ya respondí en el Pleno Extraordinario anterior. Si DB-TU quiere un informe jurídico, DB-TU como grupo municipal tiene unos emolumentos y los puede utilizar para solicitar un informe jurídico. Este Ayuntamiento para algo que entiende no es viable, no solicitará un informe jurídico y lo que no haremos es valorar lo que hacen en otros municipios vecinos por parte de funcionarios de este Ayuntamiento. En cuanto al Plan de Accesibilidad, como sobradamente conoces, y atendiendo a vuestra solicitud, se inició el proceso de contratación. Viendo que el plan de accesibilidad que actualmente existe parecía suficiente, se consensuó entre las dos partes que no se iba a hacer un nuevo plan, sino que se utilizaría el que ya existía, y recuerdo cómo desde DB-TU se nos ofreció su colaboración, toda vez que en esos momentos el Servicio Técnico del Ayuntamiento estaba bastante agobiado de trabajo. Por lo que no hay ningún problema en que nos sentemos, veamos cuáles son las actuaciones que se pueden llevar a cabo de una manera rápida y fácil y comencemos a utilizarlo. Sobre las ayudas y subvenciones, el fácil e intuitivo acceso considero algo subjetivo. Miraremos de nuevo cómo se accede, y si se puede mejorar ese acceso a las ayudas y subvenciones. En cuanto a las preguntas, no me ha dado tiempo a apuntar todas. El acceso a los expedientes, si en algún caso no se ha dado ha sido un error, porque los expedientes en el plazo de 5 días hábiles se tiene que dar el acceso a los concejales. De lo contrario, por silencio administrativo está concedido. En cuanto al acceso de XORTU, si se ha solicitado por escrito y en 5 días hábiles no se ha

eskura egon daitezen. Gainera, igarriko zenuten pertsona aldaketak izan direla batzordeetan, Batzordeko idazkari gisa, hain zuzen ere batzordeak bizkorrago egin ahal izateko. Parte hartzeko prozesuei dagokienez, Alkatetzak ez ditu ezartzen herritarrek parte hartzeko prozesuetarako epeak; badirudi 10 egun baliodunekoa dela ohikoa. Udal honekin lan egin duen enpresak adierazi digunez, zentzuzko epea da aipaturiko hori. Ez da gobernu taldearen kapritxoa. Hainbat fase dituzte parte hartzeko prozesuek, fase guztiak ere ezin luzatu daitezke, eta bi asteko epea beharbada laburtxoa izan zen, uda zelako, eta baliteke informazioa motelago eskuratu ahal izatea. Enpresak berak aholkatu zigun gaia da, ez gurea. Enpresarekin hitz egingo dugu kontuan har dezan.

respondido, está concedido por silencio administrativo. Sobre las Actas, es cierto que ha habido un retraso, y de hecho, me consta que se están elaborando para que puedan estar a disposición. Además habréis notado que ha habido un cambio de personas que vienen a estas comisiones, como Secretario de Comisión, para poder precisamente agilizar la realización de las mismas. En cuanto a los procesos participativos, no es Alcaldía quien establece los plazos que se da a los ciudadanos para participar, 10 días hábiles parece ser que es lo habitual. La empresa que ha trabajado con este Ayuntamiento es lo que nos ha indicado como plazo razonable. No es un capricho del equipo de gobierno. Los procesos participativos tienen varias fases, tampoco se pueden alargar mucho todas las fases y más que el plazo de dos semanas, quizá fue algo corto porque fue en una época estival y era posible que el acceso fuese más lento. Es un tema que se aconsejó desde la propia empresa, no nuestro. Se comentará con la empresa para que lo tenga en cuenta.

Manuela Ruiz andreak hauxe adierazi du: Bi erregu ditugu. Kultura Batzordean galdetu genuen zelan zihoan etxebizitzaren laguntzen prozesua, eta kulturako teknikariak esan zigun gutxi gorabehera 50 pertsonak eman zutela izena. Esan zigunez, teknikari bakarra dago prozesu osorako, eta hori oso kezkagarria iruditzen zaigu, ez bakarrik denboragatik, atzerapenagatik, baizik eta, 40.000 € zati 55 pertsona egiten badugu, laguntzak oso txikiak izango direla ikusten dugulako. Hauxe adierazi du Ibarzabal andreak: Teknikariak ez zuen esan 55 pertsonak baino gehiagok eskatu zutenik, baizik eta 55 eskabide baino gehiago aurkeztu zirela. Ez zuen esan gutxi edo asko egongo den bakoitzerako. Horretan gelditu zen. Ez zuen gehiagorik esan. Desberdina da. Ruiz andreak gehitu du gaiaz galdetzen jarraituko dutela Informazio Batzordean. Erregistratzen denetik erantzuna emateko 5 egun egoteari dagokionez, esan behar da guk Ogasun eta Sustapen Ekonomiko zinegotziarentzako galdera bat erregistratu genuela azaroaren 27an... Alkateak eten egin du, hauxe adierazteko: 5 egun daude eskuratzeko eskabidea egiteko, ez galdera bati erantzuteko. Ruiz andreak gehitu du erregistratu zutela eta business market-en fakturen xehetasuna eskatzen zela, sustapen ekonomikoak eta enpleguak antolaturiko ekintza. Harrezkero ez dugu erantzunik jaso. Faktura xehetasunez

Por parte de Dª Manuela Ruiz se indica: Tenemos dos ruegos. En la Comisión de Cultura preguntábamos cómo iba el proceso de ayudas de la vivienda y el técnico de Cultura nos comentó que se habían apuntado aproximadamente más de 50 personas para las mismas. Nos dijo que únicamente había un técnico para todo el proceso y esto nos preocupa muchísimo, no solamente por el tiempo, la tardanza, sino porque si dividimos 40.000 € entre 55 personas, percibimos que las ayudas serán nimias. La Sra, Ibarzabal indica: El técnico no comentó que habían solicitado más de 55 personas, sino que se habían presentado más de 55 solicitudes. No entró a decir si iba a haber poco o mucho para cada uno. Ahí quedó. No dijo más. Es diferente. Añade la Sra. Ruiz que seguirán preguntando sobre el tema en Comisión Informativa. En cuanto a la respuesta de que son 5 días de respuesta desde que se registra, decir que nosotros registramos el 27 de noviembre una pregunta para la Concejala de Hacienda y Promoción Económica …..Interrumpe el Sr. Alcalde indicando que hay 5 días para una solicitud de acceso, no para contestar una pregunta…. Añade la Sra. Ruiz que la registraron y solicitaba detalle de las facturas del business market, acto organizado por promoción económica, empleo. Desde entonces no hemos tenido ninguna respuesta. Nos

zelakoa den jakin gura genuke, herritarroi zenbat kosta zaigun jakiteko. Ez dut uste ezer ezkutatu beharra dagoenik. Ez dugu ulertzen hain atzerapen handia. Nire ustez, herritarrek fakturak eduki behar dituzte, webean ere bai, herritarrok ordaintzen ditugulako, eta gardentasun ataria ezinbestekoa da. Udal honen gardentasun atarian ez dira fakturak agertzen.

Alkate jaunaren erantzuna: Gardentasun atari dela-eta, Gardentasunaren Legea irakur dezazun gomendatzen dizut. Gainerakoei dagokienez, espedientea eskuratzeko eska dezakezu, Sopela Business Market zenbat kostatu den eta hortxe duzu kostua. Udalean ez dagoen informazioa ezin dizugu eman. Hemen enpresa bat kontratatzen da ekitaldia egin dezan, hala egin du, ekoitzi eta ordaindu egiten zaio. Ez dut ikusten non dagoen gardentasunik eza gai honetan. Hitzaldi bakoitza kostatu denaren, eta abarren banakapena nahi baduzu, fakturaz faktura, enpresara jo dezakezu, eta eman nahi badizu, oso ondo, baina gauza bera da obra bat egiten dugunean adreilu bakoitza zenbat kostatzen den eskatzea. Nahi baduzu espedientea eskuratzea beste edozein zinegotzik bezala, egin behar den izapidearekin, lege aldetik dagoen egoerarekin, etab., ez dut ikusten non dagoen gardentasunik eza. Ruiz andreak eten egin du: Hala iruditzen zaigu, ez zaigulako erantzunik ematen eta banakapena erakusten. Herritarren diruarekin ordaindutako dirua da. Alkate jaunak eten egin du: Berriz diotsut. Obra bateko adreilu edo baldosa bakoitza zenbat kosta zaigun esatea bezalakoa da. Zenbateko globalagatik kontratatzen da obra edo zerbitzua, zenbait kasutan banakapen handiagoa dago eta beste batzuetan zerbitzu jakin bat kontratatzen da, eta kasu honetan zerbitzu konkretua Sopela Business Market antolatzea eta egitea da. Zure intsinuazioak haserrea ere uste dut eragiten duela jada pertsona batzuengan. Prozesu jakin honen gainean baten bat baduzu, administrazioarekiko auzibidera jo dezakezu, hots, hainbat bide dituzu. Guk dugun informazioa eman dizugu. Normaltasunez, legea beteta eta gardentasunez egin da kontratazioa. Informazio gehiago nahi baduzu, ez dakigu zer gehiago eman. Ruiz andreak eten egin du: Ez dut zure altruismoa zalantzan jartzen. Izan ere, Mª Teresa Fernandezek esan zidan doan etorri zirela, baina Sopelako herritarrok 18.000 € ordaindu ditugu eta banakapena izateko eskubide dugu. Ez dut ulertzen zergatik ez zaigun faktura

gustaría tener ese detalle de esa factura para conocer lo que nos cuesta esa factura a los ciudadanos. No creo que haya nada que ocultar. No entendemos tanta tardanza. Creo que los ciudadanos tienen que tener las facturas, incluso en la web, porque lo pagamos los ciudadanos y el portal de transparencia es imprescindible. El portal de transparencia de este Ayuntamiento no refleja las facturas.

Contesta el Sr. Alcalde: Sobre el portal de transparencia, te recomiendo que leas la Ley de Transparencia. Sobre el resto de cosas, tú puedes pedir acceso a ese expediente, ver lo que ha costado el Sopela Business Market y ahí tienes el coste. La información que en el Ayuntamiento no existe, no te la podemos dar. Aquí se contrata una empresa para que haga un evento, lo hace, se ha producido y se paga a esa empresa. No veo dónde está la falta de transparencia en eso. Si tú quieres un desglose, factura por factura, de lo que ha costado cada ponente, etc te puedes dirigir a la empresa, y si quiere facilitártelo, perfecto, pero eso es como pedirnos, cuando realizamos una obra, que te digamos cuánto cuesta cada ladrillo. Tú si quieres tienes acceso a ese expediente como cualquier Concejal, con la tramitación que tiene que haber, con la situación legal, etc y no veo dónde está esa falta de transparencia. Interrumpe la Sra. Ruiz indicando: La percibimos porque no se nos contesta ni se nos enseña el desglose. Es un dinero que se ha pagado con el dinero de los ciudadanos. Interrumpe el Sr. Alcalde diciendo: Te repito. Eso es como pedirnos que te digamos lo que cuesta cada ladrillo o baldosa de una obra. Se contrata una obra o servicio por un global, en algunos casos existe un desglose superior y en otras se contrata un servicio en concreto y en este caso el servicio concreto es la organización y realización del Sopela Business Market. Tus insinuaciones, creo que a algunas personas ya llegan a molestar. Si tienes alguna sobre ese proceso en concreto, puedes acudir al Contencioso-Administrativo, es decir, tienes diferentes vías. La información que tenemos nosotros, te la facilitamos. La contratación se ha producido de manera normal, legal y transparente. Si quieres más información, no sabemos qué más darte. Interrumpe la Sra. Ruiz indicando: No dudo de su altruismo. De hecho, Dª Mª Teresa Fernández me comentó que habían venido gratis, pero los ciudadanos de Sopela hemos pagado 18.000 € y tenemos el derecho de tener el desglose. No entiendo

aurkezten, eskerrak ematen dizkiogu oso jende altruista delako eta horrela enteratuko gara nortzuek kobratu dituzten 18.000 €-ak. Alkate jaunaren erantzuna: Zuk kobratzen dituzun dieten banakapena aurkeztea bezalakoa da hori. 2 lanordurengatik joan zaren, ikasketengatik, negoziazioagatik, etab. Zerbaiten zalantza baduzu, egokitzat jotzen duzuna egitera bultzatzen zaitugu. Ruiz andrearen erantzuna: Ez dut arazorik nire dietak banakatzeko, inola ere ez. Zergak ordaintzen ditugu, Ogasunari ordaintzen diot eta ez daukat arazorik. Herritarren jakin nahi badute, 135 euroko 5 dieta kobratzen ditut, 800 €. Ez daukat arazorik nire banakapenetan. Ez dut ulertzen zergatik dagoen hainbat arazo 18.000 €-ko fakturarekin. Alkate jaunaren erantzuna: Eztabaida hau bukatzeko, arazoa da kontratatzen dena ez dela banakapena. Ekintza bat kontratatzen da, eta trukean prezioa kobratzen da. Zenbatekoaren araberakoa da: hiru enpresa egon zitezkeen kontratatuak izateko. Prozedura negoziatua egon bada, lehiaketa egon da, eta, beraz, gardentasun osoa. Diotsudan moduan, ez dakit zehazki zer nahi duzun, udalak daukan informazioa ematen dizulako. Hori eta Takolo, Pirritx eta Porrotsen emanaldi batean bakoitzak zenbat kobratu digun jakitea gauza bera da. Emanaldia kontratatzen bada, ordaindu egiten da, baina ez dakigu parte hartu duen bakoitzak zenbat kobratzen duen.

Hauxe adierazi du Guillermo Vio jaunak: Jabetza edo baterako jabetza eskubidea eskatuko genuke, dibertigarria iruditzen zaigulako erregu batzuk entzutea, kontuan hartuta aztertzen ari den Irisgarritasun Plan hori gure legealdian egin zela. Ondo legoke gu enteratzea. Alkate jaunak eten egin du: Zorionak.

Hauxe gehitu du Vio jaunak: Eskerrak, ondo dago zerbaitekin enteratzea. Jauregizar plazaz ari gara, eta guk batzordean proiektu bat aurkeztu dugu. Tasak erraz eskuratzea aipatu da, eta gure kideak egun batean web orri guzti horietako irisgarritasun mugimendu oso bati buruzko irakurketa errazerako mozioa aurkeztu zuen eta, gainera, onetsita dago. Etxebizitzetarako laguntzen egoerei buruz erregistraturiko galderak otsailean erregistratu genituen. Horregatik guztiagatik, jabetza apur bat edo horrelako zerbait gustatuko litzaiguke. Beste barik. Joan den asteazkenean galdera bat egin genuen Komunikazio Batzordean herrian egiten ari diren elkarrizketa batzuei

por qué no se nos presenta la factura, vemos el desglose, le damos las gracias porque es gente muy altruista y así nos enteramos quién ha cobrado los 18.000 €. Contesta el Sr. Alcalde: Es lo mismo que no presentamos el desglose de las dietas que tú cobras. Si has ido por 2 horas de trabajo, estudio, negociación, etc. Si tienes dudas de algo, te animamos a que emprendas las acciones que entiendas oportunas. Contesta la Sra. Ruiz: No tengo ningún problema en desglosar mis dietas, en absoluto. Pago mis impuestos, pago Hacienda y no tengo ningún problema. Si los ciudadanos quieren saber, yo cobro 5 dietas a 135 euros cada una, 800 €. No tengo ningún problema en mis desgloses. No entiendo por qué hay tanto problema con una factura de 18.000 €. Contesta el Sr. Alcalde: Por acabar con este debate, el problema es que lo que se contrata no es un desglose. Se contrata un acto, por el que se cobra un precio. Depende del importe, habrá habido tres empresas que hayan podido optar. Si ha sido un procedimiento negociado habrá habido un concurso, por lo tanto, transparencia absoluta. Como te digo, no sé exactamente qué es lo que quieres, porque la información que tiene el Ayuntamiento te la da. Eso es como querer saber si en una actuación de Takolo, Pirritx eta Porrots cuánto ha cobrado cada uno. Se contrata una actuación, se paga pero desconocemos cuánto debe cobrar cada persona que ha participado.

Por parte de D. Guillermo Vío, se indica: Pediríamos un derecho de propiedad o copropiedad, porque se nos hace divertido escuchar ciertos ruegos, teniendo en cuenta que ese Plan de Accesibilidad que se está estudiando se hizo en nuestra legislatura. Estaría bien que nos enterásemos. Interrumpe el Sr. Alcalde indicando: Zorionak por cierto. Añade el Sr. Vío: Menos mal, está bien que nos enteremos de algo. Que hablamos de la plaza de Jauregizar y nosotros en Comisión hemos entregado un Proyecto. Que se habla de un acceso fácil a las tasas, y nuestro compañero presentó en su momento toda una moción de lectura fácil de todo este movimiento de accesibilidad a todas las páginas web y demás, y que también está aprobado. Que las preguntas registradas sobre las distintas situaciones de las ayudas a la vivienda, las registramos nosotros en Febrero. Por todo ello, un poco de propiedad o algo así, ya nos gustaría. Sin más. El miércoles anterior hicimos una pregunta en la Comisión de Comunicación

buruz. Arduradunak une horretan ez zekien erantzuten, eta egunaren amaieran erantzungo zuela esan zigun, beste bi batzorde baitzeuden ondoren. Bi ordu geroago ez zigun erantzun. Alkate jaunaren erantzuna: Begiratuko dugu. Ez dakit zer galdera esan nahi duzun. Vio jaunaren erantzuna: Herrian deiak egiten ari dira Gizaker eta Ikerfel, udalari buruzko eta politikari buruzko galderak eginez. Udal honetatik atera da edo ez da hemendik atera? Bi dira. Informazio kontraesankorrak ere izan dira enpresa batetik eta bestetik. Alkate jaunaren erantzuna: Ez da udal honetatik atera. Espero dezagun informazioa ematea eta jendearen erantzuna zein den pixka bat jakitea.

sobre unas entrevistas que se estaban haciendo en el pueblo. El responsable no sabía en esos momentos la respuesta y nos comentó que se nos respondería al final del día, toda vez que había otras dos comisiones posteriores. Dos horas después, no nos contestó. Contesta el Sr. Alcalde: Lo miramos. No sé a qué pregunta te refieres. Contesta el Sr. Vío: En el pueblo se está llamando haciendo preguntas municipales y políticas por parte de Gizaker e Ikerfel. ¿Ha salido de este Ayuntamiento o no ha salido de aquí? Son dos. También han salido informaciones contradictorias de una y otra empresa. Contesta el Sr. Alcalde: No ha salido del Ayuntamiento. Ojalá nos las pasen y conocemos un poco así la respuesta de la gente.

Iratxe Moreno andreak adierazi du: Otsailaren 16an, herri honetako auzokide batek erregistraturiko bi galdera edo erregu aurkitu genituen postontzietan, suposatzen dut beste taldekoek ere jaso dituztela. Horietako bat udalerri honetako argiei buruzkoa da, eta bestea Eleizbide eta Lauaxeta kaleetako obra batzuei dagokiena. Antza denez, oinezkoak igarotzea saihesten edo galarazten ari dira zelanbait. Gure galdera erregua da aldi berean: ea erantzuna eman zaion emakume horri, eta hala ez bada, lehenbailehen eman dakiola erantzuna, bere idazkian kezkatuta dagoela erakutsi duelako. Alkate jaunaren erantzuna: Ez dakit. Argindarra dela-eta, RBTren lehen fasea bukatuta dago, bigarren fasea oraintxe hasiko da eta horrekin konponduta gelditzen dira udalerriko aginte-toki guztiak. Hemendik aurrera, bigarren fasean sartuko gara, elektrizitate lineetan egon litezkeen akatsak ikusteko, aginte-tokietatik harago. Akats asko izango direla aurreikusten dugu, zoritxarrez, eta seguruago izan dadin egiteke dagoen inbertsioa are handiagoa izango dela ere bai. Moreno andrearen erantzuna: Eskertzen dizut erantzuna, baina nire ez didazu eman behar, auzokideari baino. Nik badakit zelan dagoen argien gaia. Obra dela-eta, andre horrek dio oinezkoen pasabidea ixten ari dela Lauaxeta kalean gora eta ez dagoela oinezkoen pasabiderik, hau da, buelta handia eman behar dutela Zipiriñe eskolara joateko eta espaloia behintzat libre gelditzea eskatzen du, bere ustez espaloi horretan ez delako jarduketarik egingo. Hori aztertu eta erantzun dezazuela, beste barik. Alkate jaunaren erantzuna: Aztertuko dugu. Makineria astuna ari da lanean hor, eta suposatzen dut segurtasun kontua izango dela

Por parte de Dª Iratxe Moreno se indica: El día 16 de febrero pasado, encontramos en los buzones, me imagino que también el resto de grupos, dos preguntas o ruegos registrados por una vecina de este pueblo. Uno de ellos es sobre el tema de las luces de este municipio y otro referente a unas obras en la Calle Eleizbide y Lauaxeta, que al parecer están evitando o impidiendo, de alguna manera, el paso peatonal. Nuestra pregunta y ruego a la vez es si se le ha respondido a esta mujer, y si no es así, que se le dé una respuesta en el menor tiempo posible, toda vez que en sus escritos refleja cierta preocupación. Contesta el Sr. Alcalde: Lo desconozco. En cuanto a la electricidad, la primera fase de la RBT está concluida, la segunda fase comienza ahora y con eso quedan todos los centros del mando del municipio arreglados. A partir de ahora entramos en la segunda fase de ver qué fallos puede haber en las líneas de electricidad, más allá de los centros de mando. Prevemos que los fallos serán muchos, por desgracia, y que la inversión que aún queda por hacer para que sea más segura, es todavía muy importante. Contesta la Sra. Moreno: Te agradezco la respuesta pero no me la tienes que dar a mi, sino a la vecina. Yo ya sé cómo está el tema de las luces. En cuanto a la obra la Sra. Dice que está cortado el paso peatonal por arriba de la Calle Lauaxeta y que no queda ningún paso peatonal, es decir, que tienen que dar mucha vuelta para ir a la Escuela Zipiriñe y que pide, que al menos, la acera quede libre, toda vez que entiende que en la misma no se va a acometer ningún tipo de actuación. Simplemente que lo miréis y respondáis. Contesta el Sr. Alcalde: Lo miraremos. Ahí está

beste ezer baino. Hala ere, aztertuko dugu ea zerbait egin daitekeen hori ez gertatzeko. Moreno andrearen erantzuna: Ulertzen dut zure erantzuna, Gontzal, baina herritarrek batzuetan ez dakite.

actuando maquinaria pesada y supongo que será más un tema de seguridad que de otra cosa. No obstante miraremos si es posible hacer algo para que no suceda esto. Contesta la Sra. Moreno: Entiendo perfectamente tu respuesta Gontzal, pero los vecinos a veces no la saben.

**Eta jorratzeko gai gehiago egon ez denez gero, bukatutzat eman da bilkura arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean. Orduan, bertaraturiko publikoak kontsultak egiteko txanda ezarri da, eta hori guztia egiaztatzen dut idazkaria naizen aldetik.**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, finaliza la sesión a las veinte horas y treinta minutos, momento en el que por la Alcaldía se establece un turno de consultas por el público asistente, de lo que yo, la Secretaria Certifico**.